



JOXEMARI ITURRALDE

EZ DA HARRITZEKO

Aste honetan jakin berri dugu Pablo Picassoren «Guernica» koadro famatua ez datorrela —hobe esanda, ez dutela ekartzen utziko— Bilbora. Madrilen dagoen Reina Sofia Museoko Patronatuak ezezko iritzia eman du arrazoi teknikoak direla medio.

Hemen, Euskal Herrian, jende asko eta asko harritu egin da eta, nonbait, harritze horrekin batera, baita haserretu ere eta ez gutxi gainera. Beste jende asko ordea ez. Izan ere, ez baita oso harritzekoa izan Madrilen hartu berri duten erabaki hori. Xabier Arzalluzek esan omen du «Berriro ere Euskadira bonbak dira eta Madrilerako, aldiz, artea» Bera izan da beraz izugarri hasarretu den horietakoa. Halere, Arzalluzek joan-etorri dextente egin izan ditu Madrileraino hori lehendik ere ez jakiteko eta orain harridura itxurak egiten hasteko.

Garaia zenean ordea —Picassoren «Guernica» koadroa Euskalerrira etor zedin— burukatzeko orain harritu diren asko eta asko... non zeuden? Zertan ari ziren orduan? Eta orduan ere, lehen berandu zen eta ikusten denez, orain berandu izan da. Bestalde, Madrilekoen erabakia aski arrunta eta logikoa izan da... beti ere beren ikuspuntutik begiratuta. Hauxe da eman duten azken arrazoi «teknikoa» eta guztiz erabatekoa: oso egoera kaxkarrean omen dago oraintxe bertan «Guernica» koadroa. Bai, agian, bai. Baina orain arte nola zegoen eta nola egon da? Non hondatu da, bada? Madrilen bertan? Orduan, ez al dute behar bezala zaindu?

New Yorketik ekarri baino lehen, amerikanoek esan izan balute oso kondizio txarretan zegoela margoa eta ezin zela, inolaz ere gainera, handik mugitu madrilekoek, hala ere, erabaki «tekniko» horri kasu zipitzik egin gabe berdin-berdin jarraituko zuketzen etor zedila, ekar zezatela behin eta berriz eskatu eta erregutuz. Orduan, zer gertatzen da orain? Madrilen bertan hondatu al dute orain Euskalerrira ezin dela ekarri erantzuteko?

Ikusten denez ez da lortu helburua, beraz gauzak gaizki egin dira. Egia esan, gauzak gaizki egin izan dira hasiera-hasieratik. Pablo Picassok 1937an koadroa amaitu zuenean Parisko Erakusketan zintzilikatu zuten, garai hartan gerran zegoen Espainiako Errepublikaren

ren pabilioian. Baina gerora gauza da Picassok erabaki zuela koadroa Estatu Batuetan gertuko zela eta ez zitzaiola Espainiari eman behar bertan errepublika berriro ezarriko ez zen arte. Picasso hil zenean ez zen, ez zuten bere azken nahi hori errespetatu eta azkenean koadroa Madrilerara ekarri zuten.

(Ez dator harira erabat baina berdin dio: orain errepublikako kontuak aipatzen ari direla galderatxo bat. Non daude, non sartzen dira errepublikazaleak? Ez al da inor gertatzen? Garai batean, ez oso atzera oraindik, apirilaren 14ean ezinezkoa izan ohi zen leku bat libre aurkitzea jatetxeetan afalorduan eta orain zer? Denak hil al dira ba? Begira bestela zer ari den gertatzen egunotan eskubaloiko jokalaririk bat ezkontzera omen doala eta...).

Hau guztia zigortzat hartu behar da, ene ustez. Gauzak gaizki egin direlako. Adibidez, Guggenheim Museoaren kasuan. Begiratzea besterik ez dago nola erabaki eta baita aurrera eramanez duten proiektu faraoniko hori. Hots, zer nolako dirutza gastatu den eta gastatzen ari diren (begira non geratu diren hasiera batean eman ziren diru-zifrak) zein garbitasun gutxi egon den prozesu guztian, nola batzuek aurrera eramanez duten proiektua inolako kontsultarik gabe.

Denon dirua (denon zergak) eta gutxi batzuen kapritxoa, guztion diruarekin, baita botoa erabaki hori hartu dutenen partiduei ematen ez dietenarekin ere, baita botoa (abstentzioa dela-eta) inori eman ez dietenen (hauteskunde askotan ia ehuneko berrogeitamarerraino iritsi izan da) diruarekin ere. Hau da, tartatik zatitxo bat besterik hartu behar ez zutenek osoa hartu dute eta horrela egin dituzte gauzak, edozein eratan. Eta gauzak, jakina, horrela gaizki egin ohi dira.

Bestalde, Picassoren «Guernica» koadroa inoiz ekarriko balitz Euskalerrira esan beharrik ez dago Gernika hiria litzatekeela bere kokaleku bakarra eta ez Bilboko MacDonaldis... barkatu, Mac Guggenheim museoa. Gernika baita, izatekotan, bere leku propioa eta naturala. Ez dagokio besterik ●

«Hau guztia zigortzat hartu behar da, ene ustez. Gauzak gaizki egin direlako. Adibidez, Guggenheim Museoaren kasuan. Begiratzea besterik ez dago nola erabaki eta baita aurrera eramanez duten proiektu faraoniko hori. Hots, zer nolako dirutza gastatu den eta gastatzen ari diren zein garbitasun gutxi egon den prozesu guztian»